Hurrengo ariketa hauek egin erantzun zuzena aukeratuz:

1. Materia da….

   … masa duen eta espazioan lekua okupatzen ez duen edozer da materia.
   … masa ez duen eta espazioan lekua okupatzen duen edozer da materia.
   … masa duen eta espazioan lekua okupatzen duen edozer da materia.

2. Materia da…

   … hiru egoeratan agertzen da: solido, likido eta gasa.
   … egoera berean dago beti.
   … hiru egoeratan agertzen da: solido, likido eta itsasia.

3. Ura eta zure gorputza….

   … materia dira.
   … ez dira materia.
   … materia dira salbuespenekin.

4. Materiaren propietate orokorrak...

   … masa (objektu baten duen materia kantitatea) eta bolumena (objektu batek betetzen duen espazio kantitatea) dira.
   … masa (objektu batek betetzen duen espazio kantitatea) eta bolumena (objektu batek duen materia kantitatea) eta dentsitatea (masaren eta bolumenaren arteko erlazioa) dira.
   … masa (objektu batek betetzen duen espazio kantitatea) eta bolumena (objektu batek duen materia kantitatea) dira.

5. Masa baskulen eta balantzen bidez neurtzen da:

LIVEWORKSHEETS

… kilogramotan, mililitrotan eta metro kubikoetan…

… kiligramotan, zentigramotan, gramotan…

… kilogramotan, gramotan, litrotan...

6. Sartezintasuna da….

… Gorputz bat leku batean dagoenean, momentu eta toki berean beste bat egon daiteke.

… Gorputz bat leku batean dagoenean, momentu eta toki berean ezin da beste bat egon, ez badiogu bati behintzat zulo bat egiten, bestea barruan sartzeko.

… Beste gorputz baten barruan sartzea.

7. Materiaren propietate berezien artean elastikotasuna dugu, hau….

… gorputz batek besterai arrastoa egiteko gaitasuna da.

… ontzietatik isurtzeko duen gaitsauna da.

… hasieran zuen forma eskuratzeko duen gaitasuna da.

8. Materia bat gasetik likidora pasatzea…

… lurruntzea da.

… kondentsazioa da.

… solidotzea da

9. Materia bat likidotik gasera pasatzea….

… lurruntzea da.

… kondentsazioa da.

… solidotzea da

10. Mahonesa...

… homogeneoa da, osatzen duten osagaiak begi kolpe batez bereiz daitezkeelako.

LIVEWORKSHEETS

... heterogeneoa da, osatzen duten osagaiak begi kolpe batez bereiz daitezkeelako.

... homogeneoa da, osatzen duten osagaiak ez direlako begi kolpe batez bereizten.

11. Nahasteen bereizte metodoak....

... dekantazioa, magnetismoa, solidotzea eta urtzea dira.

... dekantazioa, magnetismoa, lurruntzea eta urtzea dira.

... dekantazioa, magnetismoa, lurruntzea eta gogortzea dira.

12. Egoeraz, posizioaz edo itxuraz aldatzea, nolako aldaketa da?

... Aldaketa kimikoa.

... Aldaketa fisikoa.

... Erreakzio kimikoa.

13. Beraorengatik, tamaina ladaketak gerta daitezke?

... Ez, tenperatura aldaketa da bakarrik.

... Ez, beroak posizio aldaketak baino ez ditu eragiten.

... Bai, dilatazioak gerta daitezke, hau da, objektuak dilatatu edo uzkurtu egin daitezke.

14. Materia aldaketa kimikoetan...

... Substantzia berriak propietate berriak izango ditu eta inoiz ez da lehengora bueltatuko.

... objektuak posizioa edo itxura aldatuko du, baina materia mota ez da aldatzen

15. Solidotzearen bidez...

... solido bat tenperatura jakin batera berotuz gero, likido izatera pasatzen da.

... likido bat tenperatura jakin batera hoztuz gero, likido izatetik solidora pasatzen da.

... tenperatura igotzean, likido bat gas egoerara pasatzen da.

LIVEWORKSHEETS

16. Elektromagnetismoaren barruan….

… fenomeno magnetikoak eta elektrikoak daude.
… fenomeno magnetikoak eta energetikoak daude.
… fenomeno elektrikoak eta energetikoak daude.

17. Magnetismoa….

… materia batek besteak urruntzeko duen gaitasuna da.
… materia batek besteak erakartzeko duen gaitasuna da.
…materia batek besteak erakartzeko ez duen gaitasuna da.

18. Energia berriztagarriak...

… energia berriztu egiten da, hau da, ez da bukatzen.
… energia berriztu egiten da, hau da, bukatu egiten da
… energia ez da berrizten, hau da bukatu egiten da.

19. Elektromagnetismoa ….

… gure gelako liburuak erabiltzen dute.
… gure gelako boligrafoak, arkatzak… behar dute
… gure gelako ordenagailauek erabiltzen dute.

20. Zer egingo zenuke energia aurrezteko?
… Ahal den guztietan argi artifiziala erabili, naturala erabili beharrean.
… Berogailua piztuta dagoenean lehioak ireki.
… dutxatu bainatu beharrean.

LIVEWORKSHEETS